



## **HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA**

**Data:** 2018/05/09

**Bilera zenbakia:** 05

**Bilera ordua eta lekua:** 19:00etan udaletxean

**Parte-hartzaileak:** Rosi, Ainhoa, Marijo, Amaia, Tere, Xabi eta Maddi

## **LANDUTAKO GAI ORDENA**

### **1. KULTUR AGENDAREN ERREPASOA**

#### **- Maiatzak 19, Zumba herriko plazan**

Zumbara joaten diren haur nahiz helduek erakustaldia egingo digute plazan. Gerturatzen denak ere parte hartzeko aukera izango du. Ondoren, hamaiketako txiki bat eskainiko diegu parte hartzaileei.

#### **- Maiatzak 21 edo 23, Mahai ingurua Mikel Gaztañaga, Aitor Garmendia eta Gorka Telleriarekin**

Herrian, kirol munduaren inguruan ibiltzen diren pertsona batzuk baditugula kontuan izanda, protagonismoa eman eta beraien esperientzia kontatzeko aukera izango dute mahai inguru baten bitartez.

#### **- Maiatzak 27, mendi irteera**

Eguraldiaren arabera eta apuntatzen den jendearen arabera, guztion artean nora joan erabakiko dugu.

#### **- Ekainak 15 eta 16, Arbelaitz elkarteak antolatuta, Garagardo azoka**

Urtero bezala elkarteko jendea arduratuko da hau aurrera eramateaz.

#### **- Ekainak 22, eskola amaierako festa**

Kontutan izan zenbat edari beharko duzuen guztia batera eskatzeko eta hurrengo egunean san juan bezpera ospatuko dugunez, banaketa egin beharko dugu.

#### **- Ekainak 23, San Juan sua**

Antolatzailea Arbelaitz elkarteak izango da. Urtetan guraso elkarteak arduratu da, baina orain aritzen direnak ez dira guraso elkarteak, beraz, beraien artean adostu dutela eta, aldaketa egitea erabaki dute. Bestela, antolakuntza beti bezala mantenduko da (eskariak...)

Dantzak maiatza amaieran martxan jarriko ditugu.

#### **- Ekainak 30, Ongizatekoek antolaturiko berdintasunaren inguruko Topagunea**

Edariarena kontutan izan

## 2. EUSKARA

Aurrekoan komentatutakoaren haritik, inkestak sortu ditugu jada eta orain hauek betetzea besterik ez da gelditzen. Ez da lan erraza, izan ere, galdeketak funtsa izateko gutxienez 278 emaitza jaso behar ditugu. Hori horrela, ezinbestekoa iruditu zaigu eragileei laguntza eskatu eta hauek ere lan honetan inplikatzeko. Horretarako, guztion artean inkesta bete dugu eta bakoitzak bere elkartean zabaltzeko deia ere egin diegu. Datozen egunetan bi kaxa jarriko ditugu, bata Kaxintanen eta bestea Arbelaitz elkartean. Horrela, bertan dauden inkestak bete eta kutxan utzi beharko dira. Prozesu hau egiteko ez dugu data finkorik jarri, baina komenigarria litzateke udara baino lehen datuak jaso ahal izatea. Hori horrela, bide ezberdinak erabiliko ditugu hau zabaltzeko.

## 3. FRONTOIKO MATERIALAREKIN ZER EGIN

Frontoiko obra hastear den honetan, badakigu materiala (mahaik, aulkiak...) jasotzen ditugun lokala ez dala erabilgarri geldituko, beraz, hor daukagun materialarekin zer egin eta hemendik aurrera nola funtzionatuko dugun erabaki behar dugu.

Material ezberdina dugunez, batzuk plazan edukitzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu, baina beste batzuk pabelloira edota garajera eraman daitezke. Adibidez, mahaiak eta aulkiak gordetzeko kaxa horietakoak eskuratzen baditugu, bizikleten txokoa gorde ditzakegu, giltzapean. Edaria frontoiko beste txokora pasa dezakegu, lokal hori txukunduz lekua hobeto aprobeztatu dezakegula uste baitugu. Suak eta bonbonak garajeen edo pabelloian gorde ditzakegu eta eskaera egiten denean plazara gerturatu.

Orokorrean, horrela funtzionatzeko arazorik ez dugu ikusten baina egia da badaudela garai berezi batzuk non edari, material... asko juntatzen zaigu, adibidez: kurtso amaiera (eskolako festa, san juanak...) eta jaiak. Momentu horietarako frontoiko beste lokala juxtu xamar ikusten dugu. Lokal horretan aldagelak erabili ahalko bagenitu espazio gehiago izango genuke.

<b>ETXEKO LANAK</b>	<b>NORK</b>	<b>NOIZKO</b>
Karroen prezioak begiratu	MADDI	Lehen bait lehen
Frontoiko lokal txikia eta bizikleta gordailua erabiltzeko izan ditzakegun aukerak aztertu	MADDI	Lehen bait lehe
<b>HURRENGO BILERA</b>		
<b>Hurrengo bilera EKAINaren 6an izango da.</b> <b>GAIA: FESTA BATZORDEA EGITEKO ERABILIKO DUGU</b>		